

LAUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C2 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

[A eredua]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **3h 10 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira. • Hiru irakurgai eta guztira 25 galdera. Balio berekoak (0,8 puntu). Gainditzeko, 13 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. • Testuen luzera guztira: 1.800 hitz gehienez. 	60-70 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. 	120 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzetzat da**.

1. ariketa

Identifikatu testua osatzeko falta diren testu zatiak.

Markatu testuko hutsuneak (1, 2, 3...) betetzeko zein diren testu zatirik egokienak (A, B, C...).

Aukeran ematen zaizkizun **testu zatitako bat sobera dago**.

GURE MORROITZAREN JATORRIA

Gure garaiko munduan menderakuntza-egoerak hain bilakatu zaizkigu ohikoak, non boterekeriarena gaitz estrukturala dela erratea ez den kasik eztabaidagarria ere. Egungo gaitz politiko eta sozial gehienen jatorrian dago mota bateko ala besteko opresioa, baina hain urrun begiratu behar izan gabe ere, boterekerian dute oinarria gure berdinekin ezartzen ditugun harremanetako askok ere.

1

Menderakuntza zergatik gertatzen den aztertzeko, norabide batean baino gehiagotan begiratu beharra dago. 2 Hain ohikoa ez bazaigu ere, *beherantz* ere hasi beharko dugu so egiten, tirano horien boterekeria hain erraz *onartzen* duten horiengana, alegia. Jada XVI. mendean La Boetiek ohartarazi zigunez, mendekoaren nolakotasunean aurkitzen duelako menderakuntza-prozesuak, menderatuen artean benetan nagusitzeko behar duen faktore garrantzitsuena. 3 XX. mendeko faxismoaren garaipenaren gako nagusia masaren psikologian zetzala argi frogatu zuen, eta ordura arte aintzat hartu gabe genuen faktore garrantzitsu baten berri eman zigun iraultzaileoi. Jendearen psikologiaren manipulazio errotikakoa dela botereak darabilen menderakuntza-arma eraginkorra.

Gizarte guztiek erreproduzitzen dute hurrengo belaunaldietan gizarte horri eusteko beharrezkoa den profil psikologikoa, eta eskura dituzten tresna guztiak erabiltzen dituzte, noski, jendearen mentalitatea eta jokamoldea beren beharren arabera zizelkatzeko. 4 Horregatik dakigu heziketa-plangintza guztien oinarrian dagoela pertsona/mundu ideal bat, eta eredu horren arabera atontzen dela haurraren lortu eta ekidin nahi diren ezaugarri karakterialen zerrenda.

Askatasunez bizitzeko ezintasunarena da sistema autoritarioek gure psikologian bereziki instalatu nahi duten txip-a, nor bere buruaren autoritate gisa bizitzeko gai ez den pertsonak halabeharrez ibili behar izanen duelako beste norbaiten gidaritzapean, bere esanetara, bere morroi. 5

Haurren heziketa ulertzeko paradigma hegemoniko gisa direktibitatearena ezarri izanaren atzean helburu horixe baino ez dago. 6 Bizitzan zehar eginen dituen mugimenduak ez dituela bere desio eta beharren arabera erabakiko, beregandik *kanpo* direnen interesen arabera baizik.

Mekanismo bat eta bakarrean datza, funtsean, kultura pedagogiko instruktiboak horretarako haurraren aplikatzen duen mikrobiolentzia. Adinaren arabera tipiagoa edo handiagoa izanen den bizitza-esparrua askatasunez kudeatzeko haurrak duen gaitasuna kaltetzea, horretarako dagokion eskubidea urratuz horrela.

Morrontzarako ingeniari politiko horrek oso goiz abiarazten du bere makineria, eta haur niniari berari ikasgarri nahi izaten zaio ez dela bera izaneren amaren bularra hartzeko une egokia zein den erabakiko duena —bera barneko motibazioa edo beharraren arabera—, kanpoko instantzia bat baizik. 7 Bere erabakien zentralitatea bere baitatik erauzita, halabeharrez ezarri beharko duelako beste norbaitengan. Autorregulazio (eta autogobernu)rako duen berezko gaitasuna, batzuei hainbeste komeni zaien soziorregulazioak ordezkatzuz.

Eta zer ez dugu erraten ahal eskolak erabiltzen dituen mekanismoei buruz... Irakaslea da egin behar dena eta egin behar ez dena une oro erabakiko duena; zer, noiz, nola eta zertarako ikasi behar duen aginduko diona; hitz egiteko baimena eman edo kenduko diona; erantzunak zuzenak ala okerrak diren epaituko duena. 8

Doktrinamenduaren kontrako gure borroka eraginkorra izango bada, hiritarraren oinarri psikologikoa eraldatzeko sistemak dituen mekanismoen higadura ezarri behar dugu jomuga. Eta horretarako

abiapuntua, guretzat ere nahi dugun askatasunaren paradigma ekarri behar dugun haurtzaroaren kultura argiztatzera. Sortzean diren bezain aske eta burujabe hazi daitezten, eta ez dezaten helduaroan, gure moduan, emantzipazioaren aldeko bide luzea urratu behar izan.

ABLANEDO, Ane. *Berria*, 2018ko urtarrila. Egokitua.

1. ariketa. Txertatu testu zatia

OHARRA: Aukeran ematen zaizkizun **testu zatiotako bat sobera dago.**

- A. Haurtzaroa izanik helduaren konfigurazioan erabakigarriena den garaia, heziketaren kontrola da etorkizuneko hiritarren izaeran eragin nahi duen sistema batek duen modurik errazena.
- B. Inauste-, moldatze-, hezitze- edo fabrikatze-prozesu horretan nerabeari eragiten zaion mina eta sistemak horri ateratzen dion etekina zuzenean proportzionalak dira.
- C. Tiranoak nor diren eta non dauden identifikatzeko segitu beharko dugu, noski, *gorantz* begiratzen, baina ezin dugu gure jarduna eginkizun horretan bakarrik oinarritu.
- D. Dependentsia emozionalaren inokulazio hori masiboki eragitea da heziketak isilgordean daraman ezkutuko curriculumaren funtsa, heziketari benetan eskatzen zaion egitekoa, eta erran gabe doa, arrakasta handiz lortzen duena.
- E. Ohikoak —eta beraz, normalak— direlako erabat onartu baditugu ere, erabat politikoak dira praktika pediatriko eta pedagogiko horiek guztiak; izan ere, inozenteak diruditen arren, ekintza horien bitartez hasten zaio pertsonari kanpo-gidaritza baten behar kasik biologikoa sortzen.
- F. Menderakuntzaren fenomeno mendekotasun psikologikoaren perspektibatik ikertu nahi izan dutenen artean Wilhelm Reichen ekarpena azpimarratu nahi nuke, bera izan delako gaiari ezohiko erradikaltasunarekin heldu diona.
- G. Gizarte asimetriko eta bertikalaren eredua bete-betean erreproduzitzen da hor, eta, horrela, obediencia eta gizarteari egokitu beharraren normaltasuna errotik onartzen da.
- H. Dominazioaren sistemikotasuna, *makro*-an ala *mikro*-an begiratu, benetan asaldagarria da.
- I. Pertsona gisa garatzen ari den garaitik beretik haragitu dadila haurraren beste baten gidaritzaren beharra, eta ahal bezain laster eta ahal bezain sakon barneratu eta irents dezala funtsezko lezioa.

■ Idatzi dagokion letra ondoko laukietan:

Hutsuneak	1	2	3	4	5	6	7	8
Testu zatiak								

Soberakoa

OHARRA: Soberako aukera hau ez da jaso behar erantzun-orrian.

2. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderei.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

AUTONOMIA/EKONOMIA

Bada aspaldian arrangurarik arte-merkatuaren zabalkundeaz eta, batez ere, merkatuaren legeak artean duen ustezko eragin lazgarriaz. Asaldatutako begiraleek iragarri dute diruak irentsia duela artea eta, hori horrela izanik, akabatu dela artearen berezko askatasuna (orain arte ezagutu dugun ikuspegitik, bederen). Molde kritiko konbentzionalaren arabera, bata bestearen kontrarioak lirateke *artea* eta *merkatua*. Bereizketa horrek erreklamatuko liguke *benetako artea* merkatuaren demonio-atzaparretatik babestea. Erlazio hori, baina, erretorika dikotomikoez iradokitzen dutena baino korapilatsuagoa litzateke, arteari begiratzeko dugun moduak barneratuta darama-eta dagoeneko bere dimentsio ekonomikoa. Artea eta merkatua muturrik gabeko zirkulu gisa azalduko lirateke jada, elkarrekiko erlazio funtsezkoan, lokaztutako mendekotasun baten bidez.

Zerbitzu eta bitarteko tradizioetatik askatu eta autonomia aitortu zion arteari modernitate goiztiarrak. Errealitatea irudikatu ordez, bere errealitate propioa eraikiko zuen arteak horrela. Azken batean, autonomotzat deklaratuako artelana, ekoizpen askoz moldakorragoa suertatuko zen, esate baterako, gorte eta gremioen morrontzan sortutako mural erlijioso bat baino. Aplikazio sozial eta politikoa desberdinak helburu nagusitzat zituen hasierako idealak frogatu zuen beranduago guztiz bateragarria zela hogeigarren mendeko *kapitalismoaren izpiritu* arantzatsuaren eskaerekin. Estetika modernoan joskerak, bestalde, marketinerako baldintza egokiak eskaintzen zituen, merkatua zimendatuz bien bitartean. Balio erantsia ez ezik, *ekonomia berriaren* hizkuntzarekin bat etor zitekeen autonomia artistikoaren ideia hura ere sustatzen zen. Zenbat eta autonomoago, orduan eta komenientziatzekoago nazioarteko merkatuan zirkulatzeke.

Autonomiaren idealak beharrezko fikzio gisa funtzionatu luke merkatuarekiko, eta artistaren eginkizuna litzateke nolabaiteko ilusio-geruza txertatzea artelanari. Artelana ezgai bihurtuko da inguratzen duen zera hori gabe. Edonola ere, sinplekeria dirudi egilearen kalkulu ekonomikoaren araberrako ondorio gisa irudikatzeak artelanaren motibazioa. Artearen autonomiak beregain darama esplotazio ekonomikoaren mamua baina, bestetik, eginahal apurtzailearen ondoriozko lorpen historikotzat ere jo dezakegu autonomiaren eraikuntza, artistak ahalduntzen dituen, haien nortasuna apaltzen duten merkatuen presioekiko distantzia hartuz. Arteak bueltan dituen lokarriek, izan komisarioen fantasia neurrigabea edota bildumagile, kontsultore eta bitartekarien desirak, eragin zuzena dute arte-ekoizpenean. Ondorioz, artearen askatasunaren diskurtsoa, baldintzapeko ezaugarritzat hartu beharko genuke.

Gauzak horrela, ez du zentzu handirik arteaz eztabaidatzeak merkatuaren itzal luzea kontuan hartu gabe. Eta, hala ere, horixe da egungo merkatuaren zerbitzariak ihardesten digutena: merkatuarekiko tema alboratu eta artistak zentratu daitezela *benetako artearen* ekoizpenean. Merkatu errealitatearekiko indiferentziak hobetsi egingo luke artearen bideragarritasun komertziala, argi dago-eta *benetako arterik* —kategoria zalantzarria bere horretan, daraman gizon hegemoniarekiko loturatik hasita— ez dela bere testuinguru ekonomikorik gabe.

Hogeigarren mendearen bilakaeran artearen eta bizitzaren uztartzea aldarrikatu zuten abangoardia historikoez, gertakizun unibertsalen gatazkan autonomiaren ideala gainditu eta gizarte-gaiekiko isolamendua gurutzatuz. Gaur egunera etorri, artistak oharkabean ezabatuta luke artearen eta bizitza-eszenaren arteko balizko lerro hura, edonolako ariketak espazio sozialean partekatzen ditu-eta. Baina, antzinako saiakera historikoekin alderatuz, artea bizitzara hedatzeko proposamen garaikideok bestelako norabideak dituzte, eta beraien ildo ez litzateke halabeharrez emantzipaziozkoa. Artearen balioa bizitzaren errealitatearekin hornituz, ongi bermatzen dute *ekonomia berria* delakoa: balio-eraketak ezinbesteko dituen gorputz eta subjektuen ekonomia, alegia. Bestela esanda, merkatuentzat artelan autonomoaren espekulazioa baino errentagarriago izan daiteke bizitza eta artearen baitan langarik ez duen eremua.

Zeharka irudikatutako trantsizioarekin bat, arte-sistema etenik gabe berrantolatuz doa bere horretan, egokituz doaz egiturak eta esparruak, hurbil dituen industria kulturekiko gero eta antzekoago,

hala nola zinema-produkzioa, modaren mundua, edota diseinu-sorkuntza. Ezarian, aldatuz doa panorama, egitura berriek aurre hartu diete hondoa jotako zerbitzu zaharrei, zenbaitetan galeria multinazionalen arabeko joko-zelai global bilakatzera. Aurpegiak gabeko inperio multzoak dituzte atzetik, inbertsio-talde ezezagunak, jet-set giroko eragile zuhurrek gidatuta, ekonomia berriaren jarraibideen arabera.

ARANBERRI, Ibon. *Berria*, 2017ko abendua. Egokitua.

2. ariketa. Aukeratu erantzuna

9. **Zergatik sortu da kezka artearen gainean?**
 - a) Artelanen merkatua gehiegi zabaldu delako.
 - b) Arrazoi ekonomikoengatik arteak aske izateari utzi diolako.
 - c) Artista gehienek soilik diruaren truke egiten dutelako lan.
10. **Nolakoa da artearen eta merkatuaren arteko harremana, Aranberriren iritziz?**
 - a) Ohiko teoriak esaten dutena bezain korapilotsua.
 - b) Nahi baino estuagoa, artea gaur egun horrela ulertzen dugulako.
 - c) Mendekotasunezkoa, benetako artea ez delako existitzen.
11. **Zer ekarri zuen artearen modernizazioak, egilearen ustez?**
 - a) Errealitatearen isla izatetik sorkuntza autonomoa izatera igaro zen, besteak beste.
 - b) Arteak inoiz ez bezainbesteko autonomia lortu zuen merkatuarekiko.
 - c) Artearen estetika, helburuak eta bitartekoak aldatu eta merkatuaren interesetara makurtzea.
12. **Zer dio artikulugileak artearen autonomiaren inguruan?**
 - a) Lorpen historiko ukazina dela.
 - b) Merkatuak asmatutako etiketa baino ez dela.
 - c) Ezin egokiagoa gertatu zela merkatu modernoaren interesetarako.
13. **Zergatik esaten du testuak artearen askatasuna baldintzatuta dagoela?**
 - a) Garaiko gizarteak artista behartzen duelako mezurik gabeko lana igortzera.
 - b) Artistaren helburu eta testuinguru ekonomikoek eragina dutelako artelanean.
 - c) Artearen esparruko bestelako eragileek erabakitzen dutelako nolako artelana egin.
14. **Zer dio testuak benetako arteaz?**
 - a) Artearen negoziari ez zaiola interesatzen artisten eta merkatuaren arteko lotura haustea.
 - b) Ekonomiaren ikuspegitik ez dela lehenesten den balioa.
 - c) Batzuek aldarrikatzen duten arren, gaur egun ez dela halakorik.
15. **Zer esaten du egileak bizitzaren eta artearen arteko erlazioaz?**
 - a) Aurreko mendean joera handiagoa izan zuela emantzipazioaren alde.
 - b) Urteak igaro arren, ez duela bilakaera aipagarririk bizi izan.
 - c) Egun, emantzipazioa artelanen autonomiari lotzen zaiola.
16. **Zer dio Aranberrik ekonomia berriari buruz?**
 - a) Irentsi egin duela artearen egiazko izatea.
 - b) Espekulazioan oinarritutako etekin mugatuetan oinarritzen dela.
 - c) Balio erantsia eskatzen diola arteari.
17. **Zer gertatzen ari da gaur egun artearekin, Aranberriren esanetan?**
 - a) Trantsizio-fasean dagoela, baina erroak aldatu gabe.
 - b) Merkatuaren jabe berriek erabaki dutela salgai bihurtzea.
 - c) Parekatuz doala kulturgintzaren beste arlo batzuekin.

3. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderei.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

ZAINZA ETA AUTODEFENTSA KOMUNITARIOA

Izaki bizidun ororen portaeraren printzipio oinarritzako bat ziurgabetasunari ihes egitea da. Identitatea, gure espeziean, segurtasuna mamitzeko elementu bat da, egoera komunitario babestu batean kokatzen baitu gizabanakoa. Azken mendeetan, modua izan da identitate indartsuak sortzeko, oinarri gisa harturik uniformetasun ekonomikoa —klasea— eta politikoa —Estatua edo nazioa—. Gaur egun, ordea, gero eta gehiago lausotzen ari dira orain arte babesgarri gertatzen ziren inguruneak. Lehen industrialak ziren udalerrri batzuetan, adibidez, ikusten ari dira nola ari diren hondoa jotzen beren lantegirik garrantzitsuenak (Naval, Arcelor...). Merkatuen irentsi-behar gorria eta krisiaren eragin kaltegarrien azkarra hankaz gora jartzen ari dira Estatua herriaren babesletzat jotzen duen ikuspegia. Estaturik gabeko nazioak uniformizazio kultural eta linguistiko bati aurre egin beharrez dabilta. Hori gutxi ez, eta sare sozialak komunitate-kontzientzia faltsu bat ari dira pizten, nahiz eta, berez, errealitatean elkarrengandik deskonektatuta dauden indibidualtasun huts batzuen multzoa baino ez den. Horren ondorioz, sufrimendu subjektiboa zabaltzen ari da, bakarturik egotekoa, beste sufrimendu objektibo batzuei erantsia: sistemak herritar gehien-gehienei eragiten dizkien desorekek, injustiziek eta abusuek sortutako sufrimendu objektiboak.

Gero eta egoera ziurgabeago horretan, instituzioek epelaburkeria elektoralean jarduten dute oraindik ere, eskubideen aldeko estrategia sinbolikoetan legitimatuz beren burua, nahiz eta gero praktikan ez den jartzen baliabiderik eskubide horientzat, desorekak iraultzeko. *Statu quo*ari aurre egiteko, mugimendu progresistak helduleku gisa erabiltzen ari dira zenbait logika, helburu dutenak zubi lanaren bidez lotzea errealitate batzuk gero eta zatituagoak eta desegituratuagoak daudenak, lehenago klase-logikak artikulatzeko balio zuten elementuak desagertzen ari diren heinean edo modu subjektiboan aldatuz doazen heinean.

Ikuspegi horretatik begiratuta, ulertzen da askotariko errealitateak lotzeko modu bakarra dela oinarritzat hartzea gutxieneko komun

batzuk, izendatzaileak, integratzaileak, deigarriak, koloretsuak guztiak, baina mobilizatzailetik gutxi dutenak. Azken batean, instituzio tradizionalak eta mugimendu progresistak ez dira kapaz ziurtasuna eta segurtasuna eskaintzeko. Horiek hala, neoliberalismoak suntsitutako lurra emankor bihurtu da eskuin-muturreko zenbait talde erna daitezen, merkatuei bidea zelaitzen dieten taldeak denak ere. Beren benetako helburuak lortzeko, gehienezko komun multiplo bat aurkezten dute, eta, horren bidez, neoliberaleri eta kontserbadoreei eskua emanda jarduten dute, haien anaia makarra balira bezala.

Horri erantzuteko, ziurgabetasunaren ardatzak irauli behar dira. Eta, nire ustez, eginkizun horri ekin behar liokete, elkarri eskua emanda, bai benetako berdintasun handiagoaren bidez sistema aldatu nahi dutenek eta bai bereziki berdintasun formala erabiliz sistema horri eutsi nahian dabilzanek ere. Talde horiek gehiengo zabal-zabala dute gure udalerrietan, eta lehentasun erabatekotzat hartu behar lukete herri-sareak berriz ere egituratzea, zaintza komunitarioko estrategiak baliatuz: min objektiboak, materialak eta immediatoak ez ezik, kezka subjektiboak, immaterialak eta etorkizunekoak ere ikusaraziz.

Oraintxe, ia herritar guztien artean hedatuta dago halako espektatiba falta bat, dela beren buruarentzat, dela senide zaharrentzat, edo dela, batez ere, gazteentzat. Gaur egungo gurasoei ondorengo etorkizunak pizten dien frustrazioa, zaintzan aritzen diren emakumeena, sexu-identitatea aitortzen ez dietenena; frustrazio hori berbera dute 40-50 urteko gizon langabe eta prekarioek ere, etxera ogia dakarren gizonaren ereduaren arabera sozializatutako gizon horiek, ez baitira gai buru egiteko maskulinitate toxiko batek piztutako espektatibei. Bakardadeak gaina hartuta bizi dira migratzaileak, eta halaxe haur asko ere, baina, bereziki, zaharrei eragiten die bakardadeak, beren espazio pribatuan bakartuta egoten baitira. Eta desberdinkeria mugarik gabe hedatuta dago herritarren sektore guztietan, baina guztiz bortitz jotzen ditu herritarren erdiak, hots, emakumezkoak.

Bakardadea, frustrazioa, aurreiritziak, desberdinkeria, espektatiba falta: ia denok dauzkagun minak, bizi-bizirik gaur, atzo eta bihar. Guztioi eragiten diguten minak, norberaren larruan nahiz senideenean eta lagunenean. Sorburu objektiboetan eta ziurgabetasun subjektiboetan ainguratuak. Azken finean, despolitizazio-prozesu batek elikatzen ditu min horiek. Joan den mendeko borrokaren xedea —eta, gaur egun, feminismoaren eta pentsiodunen borrokaren— arazo pribatutzat joak politizatzea izan zen, konponbide publikoak aurkitzeko; oraingo erreakzio-prozesu honek, berriz, esparru pribatuan minduta dauden subjektuak nahi ditu, identitate itxi eta baztertzaileren fikzioetara makurtuko direnak.

Horregatik, nahitaezkoa da mugimendu sozial progresistek eta instituzioek estrategia parte-hartzaileak bultzatzea, auzolanaren logika gure garaira egokituko dutenak, zaintza komunitarioko proiektuetan oinarrituak, hartara komunitatea, konplizitateak, enpatiak ehuntzeko eta baliabide sinbolikoz ez ezik baliabide materialez ere hornitutako estrategiak planifikatu eta diseinatzeko. Komunitateak ez baitira egituratzen ez aldarrien bidez ez eta errepideen bidez ere, baizik eta baliabide gisa erabiliz segurtasuna eta auzotasuna sortzeko gai diren estrategia komunitario jakin batzuk, ziurgabetasunaren eta besteenganako beldurraren aurkako babes-hesiak jarriko dituztenak.

GURRUTXAGA, Igor. *Berria*, 2018ko urtarrila. Egokitua

3. ariketa. Aukeratu erantzuna

18. Zer dio Gurrutxagak izakiaren identitateari buruz?

- a) Espezie bereko izakiak kolektibo bereko partaide sentitzera bultzatzen dituen elementua dela.
- b) Espezieari babes gabeko gizarte batetik aldentzen laguntzen dion elementua dela.
- c) Segurtasuna ematen duen elementua dela, talde bateko kide izaten laguntzen baitu.

19. Zer ekarri dute sare sozialek, artikulugilearen hitzetan?

- a) Konektaturik egoteko beharrezana eta deskonektaturik geratzearen irudipena.
- b) Komunitate-kontzientzia helburu izanik ere, gizabanakoa bakarturik sentitzea.
- c) Egoera komunitarioan bizi garen irudipena.

20. Zer dio Gurrutxagak instituzioez?

- a) Aldarrikatzen dituzten eskubideen alde ez dituztela behar diren bitartekoak jartzen.
- b) Segurtasunik gabeko egoeretan, epe motzera begirako estrategiak baliatzen dituztela, desorekak iraultzeko.
- c) Helburu elektoralak besterik ez dutenez, ibilbide laburreko promesak egiten dituztela.

21. Zein da mugimendu progresistaren helburua?

- a) Klase-logikak artikulatzeko balio izan duten elementuez baliatuta, *Statu quoari* gogor egitea.
- b) Zatiketa eragin duten elementuak desagerrarazi eta errealitate desberdinak batzea.
- c) Zatatuta eta desegituratuta dauden errealitateetan aldaketak gauzatzea.

22. Zer ondorio izan du instituzio tradizionalen eta mugimendu progresisten aritzeko moduak?

- a) Eskuin muturreko alderdiak ugaltzea.
- b) Segurtasun-sentsazioa aragotzeko lana sendotzea.
- c) Alderdi kontserbadoreak merkatuetan askeago ibili ahal izatea.

23. Nola lor daiteke ziurgabetasunaren ardatzak iraultzea?

- a) Iritzi kontrajarriak dituztenen artean adostasunak lortuta.
- b) Arreta komunitarioko estrategiak erabiliz, herri-sareak garatuta.
- c) Jendartearen arazoei oihartzun handiagoa emanda.

24. Zer sentimendu gailendu da herritarren artean?

- a) Ondorengoari buruzko itxaropen faltsuak uxatzeko, engainatu egin dituzten irudipena.
- b) Desparekotasun-egoerak ez azaleratzeko, eremu pribatuan bakartu dituzten sentsazioa.
- c) Etorkizunerako esperantzarik ez delako sentipena.

25. Zer erdietsi nahi izan zen, aurreko mendeko borrokaren bidez?

- a) Esparru pribatuko arazoak baimenik gabe agerira ez ateratzea.
- b) Esparru politikora eramandako arazoak eremu pribatuan konpontzea.
- c) Esparru pribatuko arazotzat jotakoei irtenbide publikoa topatzea.

Oharrak

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu **gaia** eta eskatzen zaizun **testu mota**.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik.**
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - eskatutako guztiari erantzun diozun eta nola: egokitasuna
 - ideiak garbi adierazi dituzun: koherentzia eta kohesioa
 - euskara nola erabili duzun: zuzentasuna eta aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.
 EGIN ARIKETAK HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.**

1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **eskutitza** idatzi behar duzu.

Gutxienez 250 hitz idatzi behar dituzu.

Oharra: **asmatu izenpea** anonimotasuna gordetzeko

GAIA: Zure atalaren arduraduna zara eta aspaldikoak dituzu arazo informatikoak direla-eta langileek helarazitako kexak. Informatika-kontuetarako azpikontratutako enpresaren zerbitzua ez zaie egokia iruditzen, besteak beste, arazo bat konpondu eta beste bat sortzen zaien ustea dutelako eta informatikariak gutxietsi egiten dituen inpresioa ere badutelako, “analfabeto digitalak” direla ere entzun behar izan dute.

Idatzi azpikontratututa duzuen enpresara horren berri emateko eta, konponbideak iruzkintzeaz batera, zerbait egin dezaten eskatzeko.

2. ariketa: Idatzi iritzi-artikulu bat *Administrazioa Euskaraz* aldizkarirako

- Jarraian, egunkari edota aldizkarietan argitaratutako **zenbait testu-aipamen** aurkituko duzu.
Bat aukeratu eta, bertan jasotzen den informazioa oinarri harturik, **iritzi-artikulua** idatzi behar duzu.
- **Gutxienez 250 hitz** idatzi behar dituzu.
- Testu antolatua eta koherentea egin behar duzu.
 - Iritziak **azaldu** egin behar dituzu.
 - Ideiak **garatu eta lotu** egin behar dituzu.
 - Ezin dituzu hitzez hitz kopiatu lagungarri gisa ematen zaizkizun aipamenetako esaldiak.

TESTU AIPAMENAK**1.****BAJAK ETA ABSENTISMOA**

Aldi baterako ezgaitasunak eragindako gastuei dagokienez, krisiak inflexio-puntu bat ezarri zuen 2008an. Urte horretatik aurrera etengabekoa izan zen jaitsiera. Joera hori 2013an aldatu zen berriro, prestazioen kostua 2,5 milioi inguru jaitsi ostean; harrezkero baina, gastua, bajaran emandako egunak, absentismoa eta abar etengabe ari dira hazten. Autonomoen kasuan baino askoz gehiago eta arinago.

Espainia oso gora dago baje tasari dagokionez, Suitza eta Finlandia ditu aurretik. Adecoren esanetan, horrek lotura zuzena du egoerotan eskaintzen den prestazioarekin. Baina absentismoari erreparatuz gero ere, oso gora dago: zerrendaburu.

Arrazoia bat edo beste, patronalak dioenez, lanera egun bakar batean ere joan ez zirenen kopurua milioi batetik gorakoa izan zen iaz estatuan.

ALCELAY, Susana. ABC, 2019-04-03. Egokitua

2.**MEDIKUAK FALTA ALA SOBERA?**

Datozen bost urteotan gaur egun lanean diharduten mediku espezialisten % 25ek hartuko du erretiroa.

Egoera horretan, fakultateetan graduatutako ikasleen, eskainitako MIR plazen eta aurrera begirako beharizanen arteko egokitzapenik ez bada, arrisku handia dugu espezialisten lekua titulu ofizialik ez duten espezialistekin (mestoak) betetzeko, edota atzerriko espezialistekin, zeintzuk, seguraski hemengoek baino formakuntza kaxkarragoa izan arren, gugana etortzen diren hemen eskaintzen zaizkien soltata eta baldintzek erakarrita, nahiz eta beren herrialdeetan beharrezkoak gertatu. Medikuek espezialisten "lapurreta" hori dagoeneko gertatzen ari da, eta batzuetan gutxieneko bermeak zaindu gabe.

<www.diariomedico.com>. Egokitua

3.

EROSLE KONEKTATUAREN AROAN

Teknologia berrien ondorioz, ugaldtu egin dira kontsumitzeko bideak, eta sekulako aldaketa gertatu da erosteko ohituretan. Erabat aldatu da erosketa-prozesua bera. Eta ondorioak agerikoak dira txikizkako ohiko merkataritzan. Amazon efektua izenarekin esplikatu izan dira txikizkako merkataritzara iritsitako aldaketa asko: saltoki handi zein txikien itxierak, hainbat prezioaren beheranzko joerak...

Dena den, badirudi gainbehera horren erritmoa apaltzen ari dela. Oraindik ere txikizkako salmenta ia guztiak *brick and mortar* (adreiluzko eta morterozko) merkataritza-gune handiek egiten dituzte AEBn. Gainera, orain arte euren salmenta gehienak eremu-digitalean egin dituzten enpresak denda fisikoak eraikitzen hasi dira, baita Amazon bera ere, fisikoki existitzeak distira berezia ematen dien ustean.

LASA, Irune. *Berria*, 2018ko abendua. Egokitua

5.

IKUSKIZUNEN ARAUDI BERRIA

Eusko Jaurlaritzak jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren EAEko lehenengo erregelamendua onartu zuen otsailaren 5eko Gobernu Bileran. EAEko udalerrri guztietako lokal eta tabernei eragingo die, eskaintza kulturalari mugak ezarriko dizkio-eta: aurrerantzean hilabetean ikuskizun bat antolatu ahal izango dute; urtean hamabi, gehienez.

Hainbat artista, tabernari eta musikari haserre azaldu dira, eta horri erantzuteko, Arteak Ireki plataforma sortu dute. Plataformako kideek azaldu dutenez, dekretuak ez die kontzertu edo musika-emanaldiei bakarrik eragingo, baita antzerki, bertsolari, DJ sesio edota erakusketei ere. «Museoetan, erakusketa-geletan eta ikuskizun komertzialetan dagoena besterik ez badute hartzen kulturatzat, kultura zer den ez dakiela erakusten du Gobernuak», gaineratu dute.

Hala bedi, 2019ko otsaila. Egokitua

4.

HOLANDAN, AKABO ESPETXE POLITIKA

Holandan epaileak espetxe-zigorren ordeaz, isun ekonomikoak, gizartearen zerbitzurako lanak edo zaintza elektronikoa —eskumuturreko edo orkatilako kontrol-tresnen bidez— ari dira ezartzen.

Modu horretara, gero eta atxilotu gutxiago dituztenez —2011tik hona % 27 gutxiago—, orain Holandan sobera dituzte espetxeak. Batzuk itxi egin dituzte, beste batzuk etorkinentzako aterpetxe bihurtu eta beste batzuk atzerriko estatuei eskaini alokairuan, haien kondenatuak ostatatzeko.

Gutxi dira, dena den, espetxeak ixten ari diren herrialdeak eta kontraste handia egiten dute Europako herrialde gehienekin, espetxeak jendez gainezka dauzkan Frantziarekin edo makroartzela-sare berria osatzen ari den Espainiarekin, adibidez.

ZUBIRIA, Pello. *Argia*, 2019-04-02. Egokitua

6.

ENPRESA EREDU PARTE HARTZAILERANTZ

Azken hamarkadetan, faktore nagusi bik aldarazi dute funtsean mundu osoko enpresentzako lehia-jokalekua: aurkikuntza zientifiko eta teknikoaren aurrerakada bizkorak, alde batetik; eta prozesu ekonomikoaren globalizazioak, bestetik. Faktore horiek industrian eragiten dute batez ere; sektore horretan, kalitatez, berrikuntzaz eta bezeroen premiei egoki erantzunez, gure herrialdekoak baino lan-kostu askoz ere baxuagoko herrialdeetako enpresekin lehiatu beharra daukate euskal enpresek.

Egoera horretan, enpresen lehiakortasuna honako baldintza hauen arabera da: bere profesionalak, haien ezagutza teknikoak eta berrikuntza-gaitasuna, taldean lan egiteko gaitasuna, bezeroen arazoekin enpatia, etab.

SINDE, Juan Manuel. *Berria*, 2017ko azaroa. Egokitua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

- **1. ariketa:** txertatu testu zatia.
- **Irakurgaia:** «GURE MORROITZAREN JATORRIA»

Hutsuneak	1.	2.	3.	4.	5.	6.	7.	8.
Testu zatiak	H	C	F	A	D	I	E	G

Soberakoa	B
------------------	---

- **2. ariketa:** aukeratu erantzuna.
- **Irakurgaia:** «AUTONOMIA / EKONOMIA»

9.	B		B		A		C		B
	C		A		A		C		

- **3. ariketa:** aukeratu erantzuna.
- **Irakurgaia:** «ZAINZA ETA AUTODEFENTSA KOMUNITARIOA»

	C		C		A		B		A
	B		C		C				